




bbke



Kode etikoa





Aurkibidea

01 Sarrera

02 Balioak

03 Jokabide-arauak

- Barne-portaera
- Hirugarrenetikiko portaera
- Gizartearekiko portaera

04 Betetzea

05 Kode Etikoa argitaratu,
onartu eta onestea

01. Sarrera

BBKren helburua da Fundazioaren hazkunde iraunkorrerako **jokabide- eta etika-estandarrik handienak sustatzea**, balio korporatiboetan eta printzipio etikoetan oinarrituta.

Horrela, Fundazioak, sortu zenetik, konpromiso etiko irmoa adierazi du, nahitaez bete beharreko arauak eta gainbegiratze eta kontrolerako barne-prozedura eraginkorrak ezarriz. Kode Etiko honek **gida eta erreferentzia izan nahi du BBK-ko patronatukide eta profesionalen jarduerarako, bai eta interes-talde guztientzat ere.**



01. Sarrera

MISIOA

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa eta Fundación BBK Fundazioa (aurrerantzean, biak "Fundazioa" edo "BBK") lanean ari gara Bizkaiaren **garapen sozioekonomikoan, ongizatean eta auke-ra-berdintasunean** laguntzeko, **lurraldean eragin positiboa sortzen duten ekintzekin, lehiakortasun jasangarriko ereduaren** eta inbertsio arduratsua- ren bidez, **Gizarte Ekintzaren hazkundera bermatzeko**.

IKUSPEGIA

Gure ikuspegia da Bizkaian **erreferentziazko erakundera** izatea, konprometi- tua eta Gizarte Ekintzaren **inpaktuagatik** eta berriro Gizarteari itzultzeko On- darearen **kudeaketa arduratsuagatik aintzatetsia**.

XEDEA

Kode Etiko honen (aurrerantzean, «Kodea») helburua da BBKren printzipio etikoak eta jokabide-arau edo portaera-jarraibideak ezartzea. Printzipio eta jarraibide horiek, aldi berean, barne-esparruko araudiak, politikak eta proze- durak gidatzen dituzte, eta horiek Fundazioaren Patronatua, Zuzendaritza

eta plantilla osatzen dugun pertsonon arteko barne-harremanak eta enpresa hornitzaileekin, pertsona onuradunekin, erakunde laguntzaileekin eta, oro har, Bizkaiko gizartearekin ditugun kanpo-harremanak oinarri izan behar di- tuzten gardentasuna eta konfiantza bermatu behar dituzte.

JARDUERA-EREMUA

Kode honetan jasotako printzipio eta jokabide-arauak BBK-ko pertsona guz- tiei aplikatuko zaizkie, bakoitzaren kontratu-harremana, kargua edo erantzu- kizun-maila edozein dela ere.

Horrez gain, Fundazioarekin harremana ezartzen duten erakunde hornitzaileek eta laguntzaileek Kode honetan ezarritako balioak, printzipioak eta arauak ezagutu, errespetatu eta bete beharko dituzte.

ZEHAPEN-ARAU BIDEA

Kode hau ez betetzeak lan-arloko diziplina-ekintzak eragin ditzake, Langileen Estatutuan eta hitzarmen kolektibo aplikagarrian ezarritakoaren arabera, eta, hala badagokio, beste era bateko erantzukizunak (administratiboak, zibilak eta/edo penalak) sor daitezke.

02. Balioak

Kultura partekatua izateak, etorkizunerako anbizioa duena eta balio komunetan oinarritua, Fundazioaren bertuteak eta eskumenak indartzen ditu eta gure interes-taldeentzat balioa sortzen laguntzen du.

BBK osatzen dugun profesional guztiok **gure balio partekatuek eta Kode honetan jasotzen diren printzipio etikoek batzen gaituzte**, gure jardun profesionala zintzotasun, etika eta profesionaltasunetik bideratzen dutelarik.



BBK-k ongizatea eta berdintasuna bultzatuko dituen **sare** bat sustatzen du, pertsonen **loraldia** eta oparotasuna bultzatzeko, **balio soziala** sortuz.

SAREA GARA

Pertsonen bizi-kalitatea hobetze aldera, eragile desberdinak inplikatzeko ditugulako tresnak, baliabideak eta iraunkortasun-bokazioa duten proiektuak diseinatu eta eskaintzeko, erronka komunak konpontzeko elkarlanean aritzen diren komunitate indartsu eta konektatuen eraikuntza sustatuz.



BERDINTASUNA GARA

Pertsonen **ahalmen indibiduala** gartzeko eta gauzatzeko lan egiten dugulako. Ikasteko, hazteko eta bizitzari aurre egiteko duten gaitasuna sustatu nahi dugu, behar dituzten tresna eta bitarteko guztiekin.

Oztopoak ezabatzea eta zerbitzu, aukera eta baliabideak berdintasunez eskuratzea bermatu nahi dugu.



LORALDIA GARA

Bizkaiko gizartearen **ongizatearekin eta oparotasunarekin** konprometitu gaudelako.

Herritarrek oinarritzko premiak aseta izan ditzaten eta hazten eta aurrera egiten lagunduko dieten **gaitasunak eta trebetasunak garatu** ditzaten laguntzen dugulako.



BALIO SOZIALA GARA

Inbertitu egiten dugulako eta Gizarteari –gure jendeari, ekonomiari, ingurumenari– **ekarpenak egiten dizkioten proiektuak bultzatzen** ditugulako.

Gizarte-balioa gara, **kontzientzia kolektiboa**, sentikorragoa eta kohesio-natuagoa, **sortzen eta indartzen** dugulako.



SUSTRAITZEA GARA

Gure **lurraldearekin** lotura dugulako, garenaren sustrai edo erroetatik. **Gure kulturarekin, gure jendearekin, gure lurrarekin** eta gauzak **egiteko moduarekin**.



INBERTSIOA GARA

Gure lurraldean etorkizun oparoago baten alde egiten duten konpainietan **inbertitzeko zorro dibertsifikatu** baten bidez laguntzen dugulako.

Gardentasuna eta zorroztasuna gara, eta gure lidergoak beste erakunde batzuk inspiratzea gura dugu arlo ekonomikotik haratago lagundu dezaten.



Eta
gizabanakoarentzat,
gizartearentzat **eta**
lurraldearentzat
inpaktua eraginez
eta balioa sortuz
 egiten dugu.

Gizabanakoarentzat

Inklusioa eta aukera-, zerbitzu- eta baliabide-berdintasuna bermatuz, helburu esanguratsuak bilatzen lagunduz, eta ikasteko, hazteko eta gure garaiko erronketara egokitzeke duen gaitasuna lagunduz.



Gizartearentzat

Partekatutako balioak identifikatuz, guztiekin hitz eginez, ekimenak bultzatuz eta erronka komunak konpontzen laguntzen duten komunitate indartsu eta konektatuen eraikuntza sustatuz.



Lurraldearentzat

Garapen iraunkor edo jasangarria bultzatuz, etengabeko berrikuntza eta ikaskuntza sustatuz, adierazpen kultural eta artistikoen garrantzia aitortuz.



KONPROMISOarekin, irauteko bokazioarekin eta epe luzerako begiradarekin.

SUSTRAITZEarekin, gure kulturarekin lotzen gaituzten loturak indartuz.

SENTSIBILITATEarekin, pertsonengatik eta pertsonen alde lan egiten dugulako.

03. Jokabide-arauak

Fundazioan, bere ondarea kudeatzen eta zaintzen duen eragile ekonomiko-finantzarioa izan nahi dugu, biztanleko Espainiako estatuan dagoen Gizarte Ekintzarik garrantzitsuena gauzatzeko; eragin sozial eta ekonomiko garrantzitsua sortzeari lotutako marka-identitatea ere sendotu gura dugu, Bizkaiko gizarteak aurrean dituen erronka berriei irtenbide jasangarriak emateko.

Gure jarduera guztiek helburu hori lortzera bideratuta egon beharko dute, eta, betiere, jarraian zehazten diren **jokabide-arauak** bete beharko dituzte.



Barne-jokabidea

LEGERIA BETETZEA ETA BARNE GOBERNANTZAKO SISTEMA

Fundazioa osatzen dugun Patronatuko, zuzendaritza-taldeko eta plantillako pertsona guztiok konpromisoa hartzen dugu unean-unean indarrean dagoen legeria zorrotz betetzeko, bai eta Kode honetan eta gure jarduera arautzen duten gainerako barne-politika eta -prozeduretan ezarritakoa betetzeko ere. Halaber, osorik errespetatuko dira hirugarrenetikiko harremanetan hartzen ditugun konpromisoak eta betebeharrak.

DELITUEN PREBENTZIOA

Delituak Prebenitzeko Politikaren printzipioekin konpromiso irmoa duela adierazten du BBK-k, eta bereziki, hirugarrenetikiko (besteak beste hornitzaile, erabiltzaile eta agintarieketiko) harremanetan legez kontraktatzat edo irregulartzat jotzen diren praktikak ez egiteko edo jokabideak ez izateko.

Fundazioa osatzen dugun pertsonok legeak, erregelamenduak eta juridikoki nahitaezkoak diren gainerako arauak ez betetzeagatik Fundazioa juridikoki erantzuletzat jo daiteke. Beraz, Fundazioak bere profesional guztiongandik espero du jardun zilegi, etiko eta profesionalki arduratsua izatea geure funtzio edo eginkizunetan.

Kode hau bete behar duten pertsona guztiek aktiboki lagundu beharko diote BBKri balizko ez-betetzeen prebentzio, detekzio eta ikerketan, eta horretarako informazio egiazkoa eta osoa eman beharko dute complianceko barne-jarduketan esparruan hala eskatzen zaienean.

IRUZURRAREN PREBENTZIOA

Diruz lagundutako proiektuen gauzatze-esparruan, kalitate etiko eta moral handia mantentzeko eta arau juridiko eta etikoak betetzeko konpromisoa hartzen da, integritate, objektibotasun, kontu-emate eta zintzotasunaren printzipioei atxikita, eta geure funtzio edo eginkizunak betetzean iruzurraren eta ustelkeriaren aurka gaudela erakutsiz.

DATU PERTSONALAK BABESTEA

BBK-k langileen eta beste interes-talde batzuen intimitaterako eskubidea errespetatzen du beraien adierazpen guztietan, eta bereziki datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

Konpromiso irmoa dago behargin edo langileen datu pertsonalak ez zabaltzeko, interesdunek baimena eman ezean, eta legezko betebeharra dagoe-nean edo ebazpen judizialak edo administratiboak bete behar direnean.

Fundazioari ematen zaizkion datu pertsonal guztiak beti tratatuko dira haiek lortzeko egon zen helburura egokituta eta une bakoitzean Datuak Babesteko indarrean dagoen araudiaren babesean, bai eta Fundazioaren barruan ezarritako barne-politikak eta -prozedurak kontuan hartuta ere.

KAPITALAK ZURITZEAREN ETA TERRORISMOA FINANTZATZEAREN AURKAKO NEURRIAK

BBK-k konpromisoa hartuko du kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea helburu izan dezaketen pertsona eta/edo erakundeekin lankidetzara oro saihesteko. Kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurkako borrokan aplikatu beharreko araudia betez, honako hauek behar bezala ziurtatuko ditu:

- 100 euroko edo gehiagoko funtsak edo baliabideak doan ematen dituzten pertsona guztien nortasuna.
- Funtsak edo baliabideak doan jasotzen dituzten pertsona guztien nortasuna.

BBK-k edozein finantza-transakzioaren edo jarduera susmagarriren berri eman-go dio Araudia Betetzeko Batzordeari.

GURE AKTIBOAK ETA ONDASUNAK ERABILI ETA BABESTEAK

BBK-k konpromisoa hartzen du bere langileen eskura jarriko dituela lanbide-jarduera garatzeko beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak eta bitartekoak.

BBK-ko kide guztiak arduratuko dira aktiboak behar bezala erabiltzeaz eta txarto erabiltze, abusu, sabotaje edo galeraren aurrean horiek babesteaz.

PRESTAKUNTZA

Kode Etikoari lotutako pertsonen ardura eta lanpostu desberdinetarako prestakuntza egokia jasoko dute, fundazioaren helburuak lortzeko ezaupideak eta trebetasunak hobetzeko ez ezik, pertsonen garapen profesionalean laguntzeko ere. Prestakuntza- eta garapen-programen helburua aukera-berdintasuna sustatzea da. Prestakuntza aldizka emango da, eta betetzen diren eginkizunen eta lanpostu edo jarduera bakoitzari lotutako arriskuen proportzioan.

ANIZTASUNA ETA AUKERA-BERDINTASUNA

BBK-k errespetatu eta balioetsi egiten du Fundazioan lan egiten duten pertsonen ikuspuntuak, talentua eta esperientzia nahasteak ematen duen aberastasuna.

Fundazioak aukera-berdintasuna sustatuko du bere langile edo beharginen artean, lana lortzeko eta gero lanbidean aurrera egiteko. Horrela, promozio edo sustapen-erabakiak prestakuntzan, merezimenduan, ahaleginean eta, beharrezkoa bada, lidergo-gaitasun eta -dohainetan soilik oinarritu ahal izango dira, betiere modu objektiboan baloratuta, eta uneoro bermatuz ez dagoela diskriminazio-egoerarik sexu, arraza, gizarte-jatorri, egoera zibil, sexu-orientazio, ideologia, erlijio edo egoera fisikoagatik.

LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Laneko segurtasuna eta osasuna funtsezko alderdia da, eta dagozkion arau-diak zorrozki bete behar dituzte Fundazioak eta hura hainbat maila eta espa-rrutanosatzen dugun pertsona guztiok.

Horren haritik, laneko osasunari eta higieneari buruzko arauak zorrotz bete behar ditugu, baita Laneko Arriskuen Prebentziorako ezarrita dauden proze-durak ere, lan-ingurune segurua eta osasungarria sustatzeko.

PERTSONEKO ERRESPETUA ETA BERDINTASUNEZKO TRATUA

BBK-k pertsonen duintasunarekiko, **osotasun fisiko eta moral**arekiko erres-petu osoa adierazten du, **laneko jazarpenik**, jazarpen moralik eta/edo sexua-gatiko jazarpenik gabeko ingurunea mantenduz, non pertsonen duintasuna-rekiko errespetua gailenduko den. Lan-giro segurua, osasungarria eta helburu pertsonalak eta profesionalak lortzen lagunduko duena erdiesteko lan egiten da, gainerakoentzat gogaikarria edo kaltegarria den edozein jokabide sai-hestuz.

BBK-k debekatu egiten du abusuzko, etsaitasunezko edo irainezko edozein jokabide, eta erabat arbuiatzen du diskriminazioa, jazarpena, abusua edo tra-

tu desegokia genero, kolore, arraza, sexu-joera, sinesmen, ideologia politiko, filiazio, erlijio, jatorri sozial, desgaitasun, nazionalitate, adin edo zuzenbideak babestutako beste edozein inguruabar edo zirkunstantziarengatik,

bai gure langileei, bai gure zuzendaritza-taldeko edo Patronatuko kideei da-gokienez, baita erakunde laguntzaileei, enpresa hornitzaileei eta gurekin elkarrekintzan diharduten gainerako erakundeei dagokienez ere.

KONTZILIAZIOA

Fundazioak badaki zaila dela lana eta familia-bizitza aldi berean egitea, eta badaki, funtzio edo eginkizunak behar bezala betetzeko, zein garrantzitsua den bizitza pertsonal osoa izatea, bizitza profesionalarekin uztartu edo bate-ragarri egiteko aukerarekin.

Horregatik, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko oreka sustatzen da, eta, ahal den neurrian, beharginen egoera eta inguruabar pertsonal eta familiarretara egokitzen da.

BIKAINTRASUNA

Baliabideen kudeaketan bikaintasuna, hau da, gure lana mundu osoan onartutako kalitate-estandarren arabera egitea, lortu beharreko helburua da, eta, horretarako, Gobernu Korporatiborako tresnez hornitu da Fundazioa. Ezarritako prozedurak nahitaez betetzea, kalitatea bermatzeaz gain, Araudia Betezeko Programa zorrotz baten oinarria da, Fundazioaren jarduera gainbegiratzeko duena eta Patronatua osatzen dutenei eta oro har erakundeari segurtasun juridikoa ematen diena.

Fundazioaren aktibo nagusia Fundazioa osatzen dugun pertsonak gara, bai eta motibatzen gaituzten balioak eta printzipioak ere. Talde gisa, Fundazioa dedikazio-senak eta bikaintasun-nahiak bideratuko dute. Fundazioak irizpide erabat profesionalak erabiliko ditu, eta bertan behar edo lan egiten dutenei seriotasuna, dedikazioa, ondo egindako lanerako bokazioa, erantzukizuna eta leialtasuna eskatuko dizkie.

Fundazioak beren ezagutza, ezaugarri, esperientzia eta lidergo-gaitasunagatik egokienak diren pertsonen esku uzten du erakundearen kudeaketa eta zuzendaritza.

ERAGINKORTASUNA

Eraginkortasun edo efizientzia ezinbestekoa da Fundazioaren jarduera ahalik eta modu eraginkorrean gauzatzeko, behar-beharrezkoak diren baliabideak soilik kontsumituz. Efizientziarekiko konpromisoa erronka zaila da, eta Fundazioaren kudeaketan parte hartzen duten pertsona guztien konpromisoa eskatzen du, pertsona bakoitzak bere onena ematea eskatuko baitu.

Efizientzia, gainera, Bizkaiarekiko konpromisoa da, azken buruan bera baita Fundazioko pertsonok kudeatzen ditugun baliabide ekonomikoen jabe; izan ere, denok izan behar dugu kontuan besteren baliabideak kudeatzen ditugula guk eta horiek zorrotz kontsumitzera behartuta gaudela.

Era berean, lanaldian efizientzia-helburuekin lan egin beharko da, Fundazioak gure esku jartzen dituen denbora eta baliabideak errentagarri bihurtuz, parte hartzen dugun prozesu guztietan ahalik eta balio handiena ematen saiatuz.

INFORMAZIO KONFIDENTZIALA

Fundazioa, bere plantilla, zuzendaritza-taldea eta Patronatua osatzen dugun guztiok isilpean gorde behar dugu Fundazioari buruzko informazio guztia, baldin eta informazio hori konfidentziala, erreserbatua eta/edo sekretua baldin bada. Beraz, informazio hori ezin izango da jakinarazi eta, are gutxiago, norberaren onurarako erabili.

Zuzendaritza eta Patronatua osatzen dutenek, beren funtzio edo eginkizunak betetzean, Fundazioari dagokion informazioari eta bere organoen eztabaidei buruzko erreserba- eta konfidentzialtasun-betebeharra izango dute, baita beren eginkizunak utzi ostean ere.

Informazio hori zabaltzeari dagokionez, bi kasu bereizi behar ditugu:

- Isilpeko informazioa zabaltzea beharrezkoa bada jarduera bat gauzatzeko, kontuz ibili eta ahalik eta neurri gehien hartu beharko dira isilpeko informazio hori babesteko.
- Informazio hori hirugarren pertsona edo/eta erakunde bati dagokionean, informazio hori, soilik eta edozein kasutan, beraren onespenearekin zabaldu ahal izango da.

FINANTZA- ETA KONTABILITATE-JARDUNBIDE EGOKIAK

BBKren informazio ekonomiko-finantzarioak, bereziki Urteko Kontuek, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza emango du(te), legean ezarritakoaren arabera.

Finantza-informazioa indarrean dauden balorazio-printzipio eta -arauen arabera egiten dela ziurtatzeko BBKn ezarritako prozedurez gain, behargin edo langile guztiek informazioa erregistratzeko eta tratatzeko zereginak arretaz bete behar dituzte, eta hori da erakundearen finantza-informazio publikoa egiteko prozesuaren oinarria.

Hirugarrenetikiko portaera

INTERES-GATAZKAK

Fundazioan ez dugu onartzen interes-gatazkarik egotea plantillako, zuzendaritza-taldeko eta/edo Patronatuko pertsonen artean. Gure jardun-eremuan hartzen ditugun erabakiak baliozko irizpide profesionalek eragindakoak izan beharko dute, eta ez interes pertsonal eta/edo familiarrek, norbanakoen onura bilatuz.

Interes-gatazkan sartuta gaudela ulertuko da gure jardun-eremuan hartzen dugun erabakiak gure interes pertsonalei, ekonomiko edo profesionalei, eragin diezaiekeenean, horiei onura edo kaltea dakarkielako.

Horren haritik, honako hauek jotzen dira interes pertsonaltzat:

- Norberaren interesak.
- Familia-interesak, hor sartuta gure ezkontidearenak edo antzeko afektitate-harremanean bizikide dugunarenak eta odol-ahaidetasuneko lagarren mailarainoko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideenak.
- Auziak ebatzi barik ditugun pertsonenak.
- Adiskidetasun mina edo ageriko etsaitasuna dugun pertsonenak.

- Edozein motatako lan- edo lanbide-harremana dugun edo gure izendapenaren aurreko bi urteetan izan dugun pertsona juridikoenak edo erakunde pribatuenak.
- Pertsona juridikoenak edo erakunde pribatuenak, horiekin edozein motatako lan- edo lanbide-harremana baldin badute aurretik aipaturiko senideek, betiere harreman horrek zuzendaritza-, aholkularitza- edo administrazio-eginkizunak betetzea badakar.

Urtero, zuzendaritza-taldea eta/edo Patronatua osatzen dutenek erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute beste erakunde batzuetan dituzten funtzioei edo karguei buruz, bai eta Kode Etiko honetan ezarritakoaren arabera gatazkan dauden jarduerak edo interesak dituzten entitateekin duten harremanari buruz ere.

BBK-k aldian berrikusi ahal izango ditu adierazpen horiek eta gainbegiratze edo kontrol-neurri gehigarriak hartu ahal izango ditu, independentzia, objektibotasuna edo betebeharrak etikoak eta compliancekoak arriskuan jar ditzaketen egoeren zantzuak daudenean.

Interes-gatazka posiblei dagokienez, Fundazioko talde profesionalak honako printzipio orokor hauek errespetatu beharko ditu:

- **Independentzia:** Une oro profesionaltasunez, Fundazioarekiko leialtasunez eta geure interes propioekiko edo hirugarrenen interesekiko independenteki jardutea.
- **Komunikazioa:** Erabakia hartu aurretik, gure interes-gatazkak adieraztea idatziz Araudia Betetzeko Batzordeari, helbide elektroniko honetan:

cumplimientonormativo@bbk.eus

Adierazpenean, honako hau adierazi beharko dugu:

- Interes-gatazkak pertsonalki edo lotutako pertsona baten bidez eragiten digun, hura identifikatuz, hala badagokio.
- Interes-gatazka eragiten duen egoera, hala badagokio erabakiaren xedea eta baldintza nagusiak zehaztuz.
- Gutxi gorabeherako zenbatekoa edo ebaluazio ekonomikoa.
- Fundazioko zein sailekin edo pertsonarekin hasi diren harremanak.

- **Abstentzioa:** Araudia Betetzeko Batzordeak aztertu egin beharko ditu jasotako adierazpena eta interes-gatazka eragin duen egoera, eta erabaki bat hartu beharko du erabakian esku hartzeari edo eragiteari uko egiteko dugun beharrianari buruz, bai eta erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartzeari eta gatazka horri eragiten dion informazio konfidentziala eskuratzeari buruz ere.

Araudia Betetzeko Batzordeak abstentzioa erabakitzen badu, hierarkian gora-goko organoa edo horren ordezkari den pertsona izango da interes-gatazkari buruzko erabakia hartzen parte hartuko duena.

Alde horretatik, Patronatuko kideren bat interes-gatazkan sartuta baldin badago, Patronatuko gainerako kideek hartuko dute interes-gatazkari buruzko erabakia.

OPARIAK ETA GONBIDAPENAK

Fundazio honetako, bere plantillako, zuzendaritza-taldeko eta/edo patronatuko kide garenok **ezin izango dugu inola ere eskatu edo onartu** harreman profesionalak ditugun hirugarren erakunde, enpresa eta/edo pertsona batengandik **ordainketa, esku-erakutsi, opari, komisio edo ordainsaririk**, helburu hauekin:

- Enpresa hornitzaileekiko eta/edo erakunde laguntzaileekiko harremanetan eragitea, edozein abantaila, tratu-desberdintasun, harreman-itxaropen, eragiteko gaitasun edo beraiekin zuzeneko edo zeharkako kontratazio-betebeharrik sortzeko moduan.
- Gure jarduera profesionalari edozein modutan eragitea, gure lana modu independente eta objektiboan egin ez dezagun, hirugarren pertsona, erakunde eta/edo enpresa horren intereserako modurik mesedegarrienean.
- Edozein legeriaren, erregulazioaren eta/edo araudiren aurkakoak izatea, dela kanpoko eta orokorra, dela Fundazioaren barrukoa eta berezkoa.

Hirugarren pertsona, erakunde eta/edo enpresa batek egindako jarduera solidario eta desinteresatu batetik eratorritako opariak edo gonbidapenak baino ez dira onartuko, baldin eta 150 eurotik beherako balioa badute. Era berean, opari eta gonbidapen guztiek lotura izan beharko dute Fundazioak lagundu edo esku hartu duen Gizarte Ekintzako proiektuen zabalkundearekin.

Fundazioak bermatuko du jasotako opariak eta gonbidapenak zuzen eta modu ekitatiboan banatzen direla gure interes-taldeen artean (erakunde-ordezkariek, langile edo beharginak, erakunde onuradunak eta gizarte-erakundeak).

Aurrez ezarritakoa betetzen ez duen edozein opari edo gonbidapen berariaz baztertu eta itzuli egin beharko da, Araudia Betetzeko Batzordeari jakinarazi ostean.

Era berean, Fundaziotik bidalitako opariak eta gonbidapenak adeitasun-seinale profesional gisa baino ez dira emango, eta haien balioa ez da inoiz 150 eurotik gorakoa izango. Opariak edo gonbidapenak ezin izango du, inola ere, erabaki profesional batean eragin lezakeen baliorik izan, ezta ere mendekotasun-harremana edo elkarrekikotasun-betebeharra eragin edo irregulartasun, fabore-tratu, lehiarako abantaila, pribilegio eta abarren itxura eman lezakeenik.

Berariaz debekatuta dago opariak jasotzea eta/edo ematea: eskudirua, opari-txartelak edo txekeak, eskudiru gisa erabiltzeko aukera ematen dutenak, beraien modalitatea, iraupena, erabilera-arauak eta abar edozein direla ere.

BBK-k opari, gonbidapen eta adeitasun-seinale instituzionalak erregistratu, kontrolatu eta gainbegiratzeko mekanismoak ezarri ahal izango ditu, haien trazabilitatea eta integritate- eta gardentasun-printzipioetara egokitzen direla bermatzeko.

GARDENTASUNA

Fundaziotik bultzatzen ditugun eta parte hartzen dugun proiektu guztietan gardentasuna bezalako balioek eragin dezaten, ezinbestekoa da Fundazioaren zintzotasuna, etika eta zuzentasuna zalantza guztietatik kanpo egotea.

Kanpoko enpresa hornitzaileak eta/edo laguntzaileak hautatzeko prozesuetan parte hartzen dugun plantillako, zuzendaritza-taldeko eta/edo Patronatuko kideok inpartzialtasunez eta objektibotasunez jardun behar dugu, gardentasun-irizpideak aplikatuz eta, salbuespen barik, dagoen barne-araudia zorrotz betez.

Ildo horretan, enpresa hornitzaileak kontratatzeke lehiaketa bat egiten den kasuetan, erabat debekatuta dago enpresa horien eta kontratazio-prozesuan parte har dezaketen Fundazioko, plantillako, zuzendaritza-taldeko eta/edo Patronatuko pertsonen arteko harremana. Hala ere, zalantzak edo galderak Fundazioko Erosketa Arloari planteatu ahal izango dizkiote enpresa hornitzaileek.

Zozketak inpartzialtasunez eta gardentasunez egin behar dira, barne-araudiaren arabera.

JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Bai BBKren jabetza intelektual eta industrial, bai Fundazioaren esku dagoen hirugarrenena, jabari publikokoa zein beste mota batekoa izan, behar bezala babestuko da. BBK-k beti eta uneoro jagon edo zainduko du hirugarrenen eskubideak errespetatu daitezen, besteak beste, erabilitako teknologia, konposizio, datu, ideia, hobekuntza, irudi, bideo eta abarri dagokienez.

Bidezko informazioa erabiltzeko eta biltzeko konpromisoa dago, hirugarrenen jabetza industrial eta intelektualaren eskubideak errespetatuz.

DOHAINTZAK ETA BABES-EKINTZAK

Dohaintza eta babes-ekintzek legezko xedapenak eta dagozkien barne-arauak betetzen dituztela ziurtatuko du BBK-k.

JARDUERA POLITIKOAK EDO ASOZIATIBOAK

Fundazioak errespetatu egiten du bere jarduerak garatzen dituen gizarteetako aniztasun politikoa, eta, ondorioz, neutraltasun politikoaren pean arautuko da.

Kode Etikoari lotutako pertsonen alderdi politikoekin edo helburu publikoak dituzten beste erakunde edo instituzio batzuekin duten edozein lotura, lankidetzatza, elkarketa edo afiliazio horien izaera pertsonala argi utzita egin beharko da, BBK hor nahastea saihestuz.

BBK-k ez ditu alderdi politikoak finantzatu, ezta horien ordezkariak edo hautagaiak ere, eta ez du propaganda politikoa helburu bakartzat duen kongresu edo ekitaldirik babestuko.

AGINTARITZA ETA ERAKUNDE OFIZIALEKIKO LANKIDETZA

Edozein erakunde publiko edo ofizialekiko edo horien ordezkarietarako harremanetan, printzipio hauek bete beharko dira: errespetu instituzionala, lankidetzatza, zintzotasuna, homogenizazioa eta betetze etikoa. Horrela, BBKn agintari judizialekin eta erakunde ikuskatzaileekin lankidetzatza arituko gara, haien eskakizunei gardentasunez eta azkar erantzunez, informazio egiazkoa, egokia eta kongruentea emanez.

BBK-k lotutako langile guztien ahalik eta lankidetzatza eta arreta handiena sustatzen du herri-administrazioekin egiten diren jardueratza guztietan, bai eta erakunde horiek edo ikuskarpen-erakundeek beharrezkotzat jotzen dituzten ikuskarpen, errekerimendu edo esku-hartzeetan ere.

BBK-k errespetatu eta onartu egingo ditu ematen diren ebazpen judizialak eta/edo administratiboak, baina eskubidea izango du, egoki den instantzia guztietan, erabaki edo ebazpen horien aurka helegitea jartzeko, Zuzenbidea-rekin bat ez datozela uste badu eta bere interesak urratzen badituzte.

KOMUNIKABIDEAK

Kanpora begira baimendutako pertsonen egindako komunikazioak baino ez ditu onartzen BBK-k, eta Zuzendaritzak finkatutako jarraibideen arabera, komunikazio zehatzak eta egiazkoak ezartzeko konpromiso irmoarekin, araudia betez eta gardentasunaren eta objektibotasunaren oinarritzko printzipioetan oinarrituta.

Komunikazio Zuzendaritza arduratuko da kanpora ematen den edozein informazio koordinatzeaz eta onartzeaz, Fundazioaren ospe eta irudi ona bermatzeko, kalitatezko komunikazio baten bidez.

ZERGEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOKO BETETZE-MAILA

Zilegi ez den jardunbide oro saihestuko da, baldin eta zilegi ez den zerga-ordainketa saihestea suposatzen badu, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren eskudunaren kaltetan.

SEGURTASUN INFORMATIKOA

Informazioaren teknologien bidez egin daitezkeen delituak prebenitzen eta kontrolatzen ditu BBK-k, eta, bereziki, ez dira jarduera hauek onartzen:

- Lehiakideen, hornitzaileen edo beste edozein enpresa edo erakunde publiko edo pribaturen sistema informatikoetara baimen barik sartzea.
- Aktibo materialetan edo ez-materialetan kalteak eragin ditzaketen birusak edo programak zabaltzea.
- Datu-baseak baimenik gabe lagatzea.
- Datu pertsonal erreserbatuak baimen barik lortzea edo lagatzea.
- Haur-pornografia.
- Beste edozein motatako kalte informatikoak, sabotajeak edo datuak edo besteren sistema informatiko batean informazioa aldatze hutsa barne.

Gizartearekiko jokabidea

GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

Fundazioak, sorrerako jardueraren eta egungo estrategiaren bidez, Bizkaia osoaren garapen ekonomikoa eta gizarte-kohesioa lortzen laguntzen du, eta, horretarako, besteak beste, hezkuntza, kultura eta enplegua sustatzeko eta kolektibo kaltebera edo zaurgarriak babesteko neurriak hartzen ditu, eta, aldi berean, helburu berak dituzten erakundeekin lotura irmoak eta iraunkorrak ezartzeko lan egiten du.

Horregatik, Fundazioak ez du ekarpenik egingo baldin eta ekarpen horien helburua ez badator bat bere gizarte-erantzukizuneko estrategiarekin.

Fundazioak egiten dituen eduki sozialeko ekarpen guztiek, edozein forma juridiko dutela ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Fundazioaren helburuekin eta estrategiarekin bat datorren helburua izatea, anonimoa ez izatea eta idatziz formalizatzea.

INGURUMENA ERRESPETATZEA ETA BABESTEA

Fundazioan konpromisoa hartzen dugu gure jarduera ingurumenari kalte gutxien egiten dion moduan egiteko, ahal den neurrian ekosistemetan izan dezakeen eragin negatiboa murriztuz eta babesteko lagungarriak diren jarduerak sustatuz, eta ingurunean eragin positiboa sortzen duten proiektuak eginez eta babestuz.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA

Ezin izango da baimendu gabeko urbanizazio- edo eraikuntza-obra egin bide, berdegune, jabari publikoko ondasun, edo paisaia, ekologia, arte, historia edo kultura aldetik beren balioa legez edo administratiboki aitortuta duten lekuetan, ezta arrazoi berberengatik babes berezikotzat jo diren lekuetan ere. Era berean, ezin izango da baimenik gabeko urbanizazio- edo eraikuntza-obra egin lurzoru urbanizaezinean.

GIZA ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK

Fundaziotik konpromisoa hartzen dugu honako hauetan jasotako Oinarrizko Eskubideak eta Askatasun Publikoak erabat errespetatzeko: 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, 1978ko Espainiako Konstituzioan eta gure lurraldean aitortutako oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babesteko eta zaintzeko gainerako araudian.

ADINGABEEN ETA ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN BABESA

BBKn konpromisoa hartzen dugu gure proiektuen erabiltzaile diren adingabeei, pertsona helduei, desgaitasuna duten eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen babesa emateko. Errespetuz eta duintasunez tratatzea sustatzen da, baita zaintza ere edozein motatako tratatu txarrak, abusuak edo jazarpena eragozteko eta horien berri emateko, eta adingabe eta heldu zaurgarriekiko tratua sustatzen da, haientzat erreferente positiboak izanik, haien parte-hartzea motibatuz, haien espazio pertsonala eta intimitaterako eskubidea errespetatuz, bai eta haien datuen eta nortasunaren pribatutasuna errespetatuz ere, atxikimendu seguru, egonkor eta positiboko harremanak sendotuz.

04. Betetzea

Kode Etiko honetan xedatutakoa Patronatuak, zuzendaritza-taldeak eta langileek betetzen dutela zainduko du BBK Fundazioak, eta Kode hau betetzen ez bada, diziplina-ekintzak onartu ahal izango dira.



04. Betetzea

Araudia Betetzeko Batzordeari dagokio Kode hau zabaldu, ezagutarazi eta betearaztea.

Kodea interpretatzean sortzen diren zalantza edo arazo guztiak Araudia Betetzeko Batzordeari zuzendu ahal izango zaizkio, helbide elektroniko honen bidez:

cumplimientonormativo@bbk.eus

Fundazioa osatzen dugun profesionalok Kodea betetzeko konpromiso formala hartu beharko dugu.

Illo horretan, Araudia Betetzeko Batzordeak aldian-aldian eskatuko die plantillari, zuzendaritza-taldeari eta Patronatuari formalki adieraz dezagula eza gutzen eta betetzen direla Kode honen jokabide-arauak.

Fundazioko, enpresako edo erakunde laguntzaileko eta/edo hornitzaileko edozein pertsonak Araudia Betetzeko Batzordeari eman beharko dio jarduera susmagarri, legez kontrako edo Kode honen edo bertan zehaztutako balio eta printzipioen aurkakoen berri, guk jakin edo susmorik baldin badugu, behintzat.

BBK-k hainbat komunikazio-bide ditu, barnekoak zein kanpokoak, komunikazio-kultura irekia, arina eta gardena sustatzeko. Informatzaileek informazioa anonimoki ere eman ahal izango dute:

- Idatziz, telematikoki, BBKren web-orri korporatiboan (bbk.eus) dagoen formularioaren bidez.
- Idatziz, fisikoki, Bilboko 19-21 Kale Nagusiko 1. eta 7. solairuetan dauden postontzi fisikoen bidez (48001).
- Ahoz, Araudia Betearazteko arduradunari jakinarazita. BBK-k komunikazio edo kontsulta horiek ahoz egiteko aukera eskaintzen du, Barneko Informazio Sistemaren arduradunarekin aurrez aurreko bilera eginez, edo, hala badagokio, hark kudeaketa eskuordetzen dionarekin.

BBK-k babes egokia bermatzen die informatzaileei, jasan ditzaketen errepresalien aurrean, eta bere informazio-kultura eta zintzotasun-azpiegitura indartzen ditu Barneko Informazio Sistema ezarriz, interes publikorako mehatxuak prebenitzeko eta antzemateko mekanismo gisa. Halaber, jasotako komunikazioen konfidentziasuna, informatzailearen nortasunaren babesa eta ikerketatik eratorritako informaziorako sarbide mugatua bermatuko ditu BBK-k.

05. Argitaratu, onartu eta onestea

05. Kode etikoa argitaratu, onartu eta onestea

Patronatua, zuzendaritza-taldea eta enplegatuak Kode honi atxiki beharko zaizkio, eta berriaz onartu beharko dituzte bertan ezarritako jarduketa-arauak, aplikatu beharrekoak direnak.

Kode Etiko hau onartu ostean sartzen diren profesionalek berriaz onartuko dituzte bertan ezarritako jardun-arauak. Bere mende dauden pertsonen aldetik, Kode Etiko honen komunikazio, hedapen eta onarpenaren ebidentzia dokumentala gordeko du BBK-k.

Kode etikoa aldian-aldian eguneratuko da, Araudia Betetzeko Batzordeak egiten dituen proposamenen arabera. Batzorde horrek gutxienez urtean behin berrikusiko du edukia, bai eta Fundazioa osatzen duten profesionalek, enpresa hornitzaileek, erakunde laguntzaileek eta esku hartzen duten gainerako erakundeek egiten dituzten iradokizun eta proposamenak ere.

Kode Etiko hau aldatzea Patronatuari dagokio beti.

Kode etiko hau Patronatuak 2026ko ekainean egindako bileran eguneratu zen azken aldiz.

